

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa

Consortio de Residuos de Gipuzkoa

2017





AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	12
III.1 Kontularitzako alderdiak	12
III.2 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea.....	12
IV. URTEKO KONTUAK	14
IV.1 Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kontuak	14
IV.2 Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren kontuak	16
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarrria zaion araudia.....	19
A.2 Aurrekontua eta urteko kontuak	21
A.3 Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren ibilgetu ukiezina eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren ondare atxikia	21
A.4 Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak eta Erreserbak, eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Ibilgetu finantzarioa eta Ondarea	25
A.5 Eragiketa finantzarioak	27
A.6 Zerbitzuak emateagatiko sarrerak eta kudeatzeko mandatuagatiko fakturazioa.....	30
A.7 Zuzkidurak eta Ustiapeneko bestelako gastuak.....	32
A.8 Langileria-gastuak.....	33
A.9 Kontratazioaren analisisa	34



ÍNDICE

ABREVIATURAS	37
I. INTRODUCCIÓN	39
II. OPINIÓN.....	41
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	41
II.2 Opinión sobre las Cuentas anuales	41
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	44
III.1 Aspectos contables.....	44
III.2 Contratación de bienes y servicios	44
IV. CUENTAS ANUALES.....	46
IV.1 Cuentas del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa	46
IV.2 Cuentas de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU.....	48
ANEXOS	51
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa de aplicación	51
A.2 Presupuesto y Cuentas anuales.....	53
A.3 Inmovilizado intangible de GHK y Patrimonio adscrito de CRG.....	53
A.4 Subvenciones, donaciones y legados recibidos y Reservas de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU e Inmovilizado financiero y Patrimonio del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.....	56
A.5 Operaciones de financiación	58
A.6 Ingresos por prestación de servicios y facturación por encomienda de gestión	61
A.7 Aprovisionamientos y Otros gastos de explotación.....	63
A.8 Gastos de personal	64
A.9 Análisis de contratación	65



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EPOELTB	5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
FA	Foru Araua.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GHHKPO	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra.
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU.
GHKZ	Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa.
GIG	Gipuzkoako Ingurumen Gunea.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
TMB	Tratamendu Mekaniko Biologikoa.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2017rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren 2017ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

HKEEk gauzatutako Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio lana 2015eko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAUren kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren urteko kontuek kanpoko auditoriako txostena dute egina.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa 2007ko maiatzaren 24an eratu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko mankomunitateek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, nork bere eskumenekin, hondakinak tratatzeko azpiegiturak kudeatu eta onera ekartzen ahaleginak batzeko erreminta modura. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren helburu nagusia da hiri hondakinen goi-hornidurako kudeaketa egitea eta horrek barne hartzen du 2002-2016 Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean (GHHKPO) aurreikusitako azpiegiturak sortu eta ustiatzeko jardura multzoa; baita, hurrengo GHHKPOn aurreikusten diren haiek ere, partzuergoan bildutako ente bati baino gehiagori zerbitzu eman diezaioketenak eta, besteak beste, honako ekintzak besarkatzen dituenak:

- Errefusarentzat Energi Berreskurapenerako Errausketa Plantaren diseinu, eraikuntza eta kudeaketa zuzena nahiz zeharkakoa.
- Gaika jasotako materia organiko biodegragarriko beharrezkoak diren konposta egiteko instalazioen kokalekua, diseinua, eraikuntza eta ustiaketa.
- Hiri hondakinen transferentziaguneen kokalekua, diseinua, eraikuntza eta kudeaketa zuzena edo zeharkakoa.
- Transferentzia estazioetatik hiri hondakinak azken tratamendua ematen zaien instalazioetara, edo kasua bada, isurtegira garraiatzea.
- Errauste prozesuetatik eratorritako hondakin eta errefusen (zepak, hauts hegalariai...) edo konposten tratamendua.

2008ko otsailaren 14an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiak onartu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa eratzea bere eskumeneko zerbitzua zuzenean kudeatzeko; honela, bada, 2009ko abenduaren 22ko Batzar Nagusiak jaso zuen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren berezko baliabide eta zerbitzu tekniko dela. 2010eko ekainaren 3an Esparru Akordioa izenpetu zuten Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak, Gipuzkoako hondakinen goi-horniduraren sistemaren bidez kudeatzeko mandatua zehazteko. 2016ko ekitaldian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiak onartu zuen aldaketak egitea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren estatutuetan eta bi erakundeen arteko Esparru Akordioan, zerbitzuen kudeaketa zuzena edo zeharkakoa jasotzeko, esparru hitzarmenaren indarraldia 40 urtetara hedatuaz.

2017ko apirilaren 3an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak obra publikoa emateko kontratua izenpetu zuen Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasea diseinatu, finantzatu, eraiki, gauzatu eta mantentzeko, zeinak Balorizazio Energetikoko Planta eta Tratamendu Mekaniko Biologikoko Planta eraiki eta ustiatzea barne hartzen baitu. 2018ko irailean obra publikoa emateko kontratua izenpetu zen Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 2. fasea diseinatu, finantzatu, eraiki, gauzatu eta mantentzeko, zeinak barne hartzen baitu biometanizazio planta bat eta balorizazio energetikoko plantatik eratorritako zepak birziklatzeko planta bat. Fase bietako obrak 2019ko ekitaldian amaitzea aurreikusi da. Azpiegitura hauek abian hasi bitartean, 2017ko ekitaldian isurkin eta errefus-hondakinak ezabatzeko zerbitzu kontratuak indarrean egon dira Meruelo (Kantabria) eta Mutiloko (Gipuzkoa) zabortegetan. 2018ko uztailaren 18an lankidetza hitzarmen bat izenpetu zen BFAREN eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren artean Gipuzkoako hiri hondakinak tratatzeko zerbitzua emateko; hitzarmenaren indarraldia 2019ko abenduaren 31ra artekoa da eta urteko aldi osoetan luzatu ahal izango da 2021eko abenduaren 31ra arte.

Honenbestez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2017an guztira 90 udalerriri eman die zerbitzu, 2017ko urtarrilaren 1ean 736.401 biztanle besarkatzen zituztenak; hona hemen Kontsortziora bildutako erakundeak zein diren:

	Euroak milakotan		
	Mankomunatatuko udalerrri kopurua	(*) Biztanleria 2017ko urtar.1	(***) Ordezkaritza ehunekoa
Gipuzkoako Foru Aldundia	-	-	% 33
San Marko Udal Mankomunitatea	10	314.776	% 29
Txingudiko Mankomunitatea	2	78.904	% 7
Debabareneko Eskualdeko Mankomunitatea	(**) 8	72.866	% 7
Sasietako Mankomunitatea	22	69.488	% 6
Debagoieneko Mankomunitatea.....	8	62.679	% 6
Tolosaldeko Mankomunitatea.....	28	61.846	% 5
Urola-Kostako Mankomunitatea	5	43.852	% 4
Urola-Erdiko Mankomunitatea.....	7	31.990	% 3
GUZTIRA	90	736.401	% 100

(*) Estatistika Institutu Nazionalaren datuak

(**) Bizkaiko Lurralde Historikokoak diren bi udalerrri (Ermua eta Mallabia).

(***) Mankomunitate bakoitzak duen ordezkaritza ehunekoa biztanle kopuruaren arabera kalkulatu, Kontsortzioko estatutuen 11. artikuluari jarraikiz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. 2016ko ekitaldian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak baja eman die aldi baterako lan kontratupeko bi langileri eta lan kontratu finkoko bi langile kontratatu ditu; horrek urratu egiten ditu kontratu mugagabeko langileen kontratazioan birjartze tasarako mugak, 2016ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 15. xedapen gehigarrian xedatutakoak (ikus A.8 eranskina).
2. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak komunikazioan aholkularitza zerbitzua kontratatu du bi kontratu txiki kateatuta, 2016ko apiriletik 2018ko uztaile arte, hilean zenbateko finko bat ordainduta; 2017ko abenduaren 31ra arte eragindako gastua 86.100 euro izan da, publikotasun eta lehia printzipioak urratuta.
3. 2017ko urtarrilaren 15ean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bi kontratu txiki izenpetu zituen sozietate berarekin merkataritzako gaietan eta administrazioari gaietan aholkularitza juridikoa emateko; bi kontratu horiek 2017ko ekitaldian 95.570 euroren gastua eragin dute eta publikotasun eta lehia printzipioak urratu dituzte.

Epaitegi honen ustetan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak ez ditu Urteko Kontu Bateratuak formulatzen, nahiz horretara behartzen duen 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, zeina ezargarria baita Kontsortzioa GFARI atxikitu izanaren ondorioz.
2. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Egoeraren Balantzeak ez du jasotzen Ibilgetu materialean GIGen 1. fasearen emakidaren aktiboa, ez eta emakida erabakitik eratorritako finantza pasiboak ere, eta bi-biak baloratu behar dira 2017ko abenduaren 31n arrazoizko balio berarekin 19,8 milioi euroren zenbatekoan. Emakidako lanak 2019ko ekitaldian amaituko dira eta ekitaldi horretan aurreikusi da emakidaren ustiapena abiaraztea.
3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren finantza ibilgetuak -2017ko abenduaren 31n 45,5 milioi euroren kontularitzako balioa duena Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren partaidetzaren ondorioz- ez du jasotzen 2016ko ekitaldian egindako 6,3 milioi euroen ekarpena; honenbestez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Ibilgetu finantzarioa eta Ondare garbia kopuru horretan gehitu beharko liriteke (ikus A.4 eranskina). Nahiz Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Ondare garbia 2017ko abenduaren 31n 17,4 milioi euro den, 4. eta 5. paragrafoetan deskribatutako zalantzen balizko ondorioak aintzat hartu gabe, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak uste du etorkizuneko



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

kutxako fluxuak nahikoa izango direla 51,8 milioi euroren inbertsioa berreskuratzeko. Alabaina, ez dugu berreskuragarritasun hori balio-neurtuko duen azterketa eskuratu.

4. Kontsortzioak deribatu finantzarioak euren balio zuzenarekin balioztatu ditu eta doitu egin du bertan esku hartzen duten aldean kreditu egoeratik arriskutik libre dagoen deribatuaren balioa. Irizpide horren arabera, 2017ko abenduaren 31n deribatuen balioetsitako balioa pasiboko idazpuruetan ez-estaldurako modura erregistratu da guztira 41,7 milioi euroren zenbatekoan (3,2 milioi euro epe laburrera eta 38,2 milioi euro epe luzera). Balorazio hau arriskuz kanpoko balioaz bestelakoa da, 56,8 milioi euro egiten dituen; likidaziorik egingo balitz, azken balio hau hartu beharko litzateke aintzat (ikus A.5).

Egoera honetan ezin ondoriozta dezakegu deribatuen kontzeptuan erregistratutako pasiboaren zuzentasuna, ez 2017ko abenduaren 31n Egoeraren Balantzean duen sailkapenaz, ez eta 2017ko ekitaldiaren galera eta irabazien kontuan eragin litzakeen ondorioez ere.

5. Eskuratutako informazioak ez digu bide ematen ondorioztatzeko ea Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren Ibilgetu ukiezinaren balio berreskuragarria (aurreikusitako kutxako fluxuen arabera, eskatutako tasarekin gaurkotuak) aipatutako aktiboaren kontularitzako balio garbia baino handiagoa den 68,3 milioi euroan, 2017ko abenduaren 31n narriadura erregistratu behar den edo ez jakiteko. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari eragindako sozietatearen sarrerei dagokienez hartzen diren erabakien bilakaeraren baitakoak izango dira etorkizuneko kutxako fluxuak.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Auditoriako gure iritzian eraginik ez badu ere, ondotik adieraziko ditugun alderdiak azpimarratu nahi ditugu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren oroitidazkietan jasoak daudenak:

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren 2017ko ekitaldiko Urteko kontuak, hurrenez hurren, kudeaketa jarraitu eta abian den enpresaren printzipioen arabera formulatu dira; printzipio horiek garatzen dituzten ataletan barne hartutako ondoko informazioa azpimarratu behar da:
 - Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren baliabide propio eta zerbitzu tekniko izaera du eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak zorpetzen dituen obligazioak Kontsortzioak bere gain hartzen ditu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 2017ko abenduaren 31n Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren maniobra funtsa negatiboa da 5,9 milioi euroan eta Ondare garbian eragina izan dute deribatuek sortutako finantza gastuen ondorioz eskuratu diren emaitza negatiboek.

Deribatu finantzarioei dagokienez, baldin eta Sozietateak obligazioei aurre egiterik izango ez balu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Esparru Hitzarmenaren arabera, honek dagozkion neurriak hartzeko obligazioa izango luke Sozietatearen finantzaren eta ondarearen egoera bere onera ekartzeko; honek barne hartuko luke, izaera mugagarririk gabe, tarifa berriak onartzea.

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren akordioak direla eta, zenbait auzi jarri dituzte Gipuzkoako eskualdeko mankomunitate eta udal entitate batzuek ez ezik, baita hirugarrenek ere (ikus A.3 eta A.6) eta horiek urteko kontuen gainean izango duten eragina auzi horien bilakaeraren eta, kasua bada, aldean artean adostu ditzaten erabakien baitako izango da.

Bestelako auziak

2019ko maiatzaren 30ean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiak Kontsortzioaren 2018ko abenduaren 31ko Urteko kontu banakoak onartu zituen. Memorian jakinarazi da 2018ko ekitaldian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Gipuzkoako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra eta Sektore Publikoaren Kontabilitateko Nazioarteko 32. Araua beretu dituela. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiak 2018an onartutako Kontsortzioaren 2017ko kontuak berriz aurkeztu dira konparazio ondorioetarako. Honela, bada, emakida ekintza eta dagokion finantza pasiboa 19,8 milioi euroren zenbatekoarekin ageri dira (ikus 2. salbuespena) eta Ibilgetu finantzarioa 51,8 milioi eurorena da, 2016ko 6,3 milioi euroren ekarpena barne hartuta (alderdi hau 3. salbuespenean jaso da).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 KONTULARITZAKO ALDERDIAK

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren emaitza ekonomiko eta finantzarioaren kontuak 24,2 milioi euroren hornidura-gastuak barne hartzen ditu eta 821.000 euroren amortizazioa, Kontsortzioak egin zaion kudeaketa-mandatuaren kontzeptuan fakturatu dituen kudeaketa gastuei dagokiena. Gastu hauek gastuaren izaeraren arabera erregistratu behar dira.
- 2017ko ekainaren 20ko Batzar Nagusiak onartu du Gastu Arruntaren kapituluko 8,7 milioi euroren kreditua Transferentzia Arrunten kapitulura aldatzea, ekonomia- eta finantza-orekari eusteko kontzeptuaren pean. Onartutako Kontuek ez dute kreditu transferentzia hori islatzen.
- Kontsortzioaren aurrekontuko likidazioak kapitalezko transferentzia bidezko gastu modura jasotzen du Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketari egindako 6 milioi euroren ekarpena, Kontsortzioak Ibilgetu finantzarioaren balio handiago modura barne hartu direnak. Honenbestez, aurrekontuan gastu modura erregistratu behar ziratekeen Finantza aktiboen kapituluan.
- 2015eko urriaren 30eko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Administrazio-kontseiluak kontratazio-espeditentea abiaraztea onartu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren Urteko kontuen auditoria zerbitzua emateko, 2015etik 2017ra bitarteko ekitaldietarako; kontratua Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako lehendakariak 2016ko urtarrilaren 29an esleitu zuen urteko 27.000 euroren zenbatekoan. Enpresa esleipendunak, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren 2017ko ekitaldiko Urteko kontuen auditoria txostena jaulki du; ez, ordea, Kontsortzioari dagokiona.

III.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Kontratazio espeditentek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak “prezio” irizpidea baloratzeko eredu-formula bat erabili ohi du. Nolanahi den ere, zenbait lehiaketetako inguruabar berariazkoen arabera, bestelako formula batzuk ere erabili ohi dira, baina batean berean ere ez da horien erabilera justifikatzen. Formularen erabilera arrazoitu egin behar litzatekeela uste dugu, eskaintzak balioztatzeko irizpideen araudiaren aurreikuspenei jarraikiz.
- Hiri hondakinak garraiatzeko lau espeditentetan, 2016ko ekitaldian guztira 13,6 milioi euroren kopuru zenbatetsiarekin esleitutakoetan (6tik 9ra bitarteko espeditentek), pleguek prezioak berrikusteko klausula bat barne hartzen dute, estatuko KPIri atxikia;



ordea, 2014ko Aurrekontuen Lege Orokorraren 88. Xedapen Gehigarriak (esleipena egin den ekitaldian indarrean zegoena) debekatu egiten du prezioen berrikusketak prezioen indize orokorreko edo horiek hartzen dituzten formulei lotzea. (Ikus A.9). 6tik 8ra bitarteko espedienteetan pleguek agintzen dute berrikuspen-klausula luzapenean aplikatuko dela eta 9. espedienteetan bigarren urtekoan aplikatuko dela.

- Guztira 13,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako lau espedienteren administrazioko baldintzen agirik (6tik 9ra bitarteko espedienteak) esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen dute, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek aurkeztea zehaztu gabe (ikus A.9).
- 4,1 milioi euroren zenbatekoan aztertu eta esleitutako obra espedienteetan (2 zk. espedienteak) ez da espedienteak onartu aurretik egin beharreko proiektuak ikuskatzeko txostena gauzatu. Txosten hori administrazio publikoei soilik baldin bazaie eskagarri ere, gomendagarria litzateke sozietateak ere egitea. Berebat, segurtasun eta osasun plana Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak izendatutako segurtasun eta osasun gaietarako koordinatzaileak izenpetzen du, baina gomendagarria litzateke kontratazio atalak onartzea (ikus A.9).

Hona hemen beste alderdi aipagarri batzuk:

- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak kontratazio espedienterik gabe eta kontratu txikiak elkarri kateatuta hiru zerbitzu kontratatatu dituen modu jarraituan 2015 eta 2016az geroztik, izan ere Epeleko planta abian jartzeko data etengabe atzeratu da eta ziur gabea da; 2017ko abenduaren 31ra arte egindako gastua 422.597 euro izan da (ikus A.9). Zerbitzu horiek emateko aldiak izan den ziurgabetasuna aintzat hartuta, uste dugu eskaintzak eskatu behar ziratekeela lehia printzipioa betearazteko.
- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren kontratazioari buruzko barne-jarraibideek aurreikusten dute lehia printzipioa 50.000 eurotik aurrera aplikatu behar dela eta honenbestez, ez dira SPKLTBren 191 artikuluan jasotako aurreikuspenak bete.

Honela, bada, lehia printzipioa baliatu gabe aholkularitzako bi zerbitzu kontratatatu direla ikusi da, guztira 70.500 euroren zenbatekoan (ikus A.9).



IV. URTEKO KONTUAK

IV.1 GIPIZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN KONTUAK

A. 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide aitortuak	Gauzat. Ordaindu	
		Hasierak.	Aldatua	Behin-bet.		kobran.	gabea
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A6	34.201	-	34.201	31.057	26.354	4.703
7.- Kapitaleko transferentziak	A4	6.000	-	6.000	6.000	6.000	-
SARRERAK GUZTIRA		40.201	-	40.201	37.057	32.354	4.703

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Obligazio aitortuak	Gauzat. Ordaindu	
		Hasierak.	Aldatua	Behin-bet.		ordaink.	gabea
2.- Ondasun arrunt eta zerbitz. gastuak ..	A6	34.201	-	34.201	31.057	24.143	6.914
7.- Kapitalezko transferentziak	A4	6.000	-	6.000	6.000	6.000	-
GASTUAK GUZTIRA		40.201	-	40.201	37.057	30.143	6.914

B. Aurreko ekitaldietako sarrera eta gastuen hondarrak Euroak milakotan

	Hasierako zorra	Baliog.	(Kobr.)/ ordaink.	Azken zorra
Zordunak.....	-	-	-	-
Hartzekodunak.....	-	-	-	-
AURREKONTU ITXIAK	-	-	-	-

C. Aurrekontuaren emaitza Euroak milakotan

Eskubide aitortuak.....	37.057
- Obligazio aitortuak.....	(37.057)
Indarreko aurrekontuko eragiketen emaitza	-
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	-

D. Diruzaintza geldikina Euroak milakotan

Diruzaintzako funts likidoak.....	2.235
Aurrekontuko zordunak	4.703
Hartzekodun ez aurrekontukoak.....	8
- Aurrekontuko hartzekodunak.....	(6.914)
- Hartzekodun ez aurrekontukoak	(26)
DIRUZAINZA GELDIKINA 2017.12.31N	6



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. Egoeraren balantzeak 2017 eta 2016ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eransk.	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		45.547	39.547	ONDARE GARBIA		45.553	39.554
Finantza inbertsioak epe luz.	A4	45.547	39.547	Ondarea	A4	119.697	109.328
				Atxikitako ondarea.....	A3	(74.150)	(69.780)
				Ekitaldi itxien ondorioak.....		6	6
AKTIBO ARRUNTA		6.946	7	PASIBO ARRUNTA		6.940	-
Zordunak		4.711	1	Kudeaketako eragiketeng. zordunak....		6.914	-
Diruzaintza		2.235	6	Administrazio publikoak.....		26	-
AKTIBOA, GUZTIRA		52.493	39.554	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		52.493	39.554

F. 2017 eta 2016ko ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuak				Euroak milakotan		
	Eransk.	2017	2016			
Zerbitzu ematea.....	A6	31.057	6			
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	A4	6.000	6.265			
Salgaien eta beste hornigai batzuen kontsumoa		(24.241)	-			
Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak		(5.995)	(6)			
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak		(6.000)	(6.265)			
Ibilgetua amortizatzea.....	A6	(821)	-			
EKITALDIKO EMAITZA		-	-			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU-REN KONTUAK

A. Egoeraren balantzeak 2017 eta 2016ko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	Eransk.	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		68.327	65.458	ONDARE GARBIA		17.410	7.406
Ibilgetu ez-materiala.....	A3	68.303	65.433	Kapitala.....		1.000	1.000
Finantza inbertsioak epe luzera.....		20	20	Erreserbak.....	A4	70.205	64.205
Geroratutako zergagatiko aktiboak		4	5	Aurreko ekit. emaitza negatiboak.....		(60.294)	(60.846)
				Ekitaldiaren emaitza.....		4.193	552
				Dirulag., dohaintzak eta legatuak.....	A4	2.306	2.495
AKTIBO ARRUNTA		15.395	12.311	PASIBO EZ-ARRUNTA		44.962	47.114
Merkat zordunak eta kobr. bestel. knt		7.717	6.485	Kreditu erakundeekiko zorrak.....	A5	6.784	7.207
Finantza inbertsioak epe laburrera .		104	104	Zeharkakoak.....	A5	38.171	39.900
Diruzaintza.....		7.574	5.722	Gerorat. zergarengatik pasiboak.....		7	7
				PASIBO ARRUNTA		21.350	23.249
				Epe laburreko zuzkidurak.....		1.272	-
				Kreditu erakundeekiko zorrak.....	A5	9.483	9.732
				Zeharkakoak.....	A5	3.491	5.703
				Beste finantza pasibo batzuk.....		2.717	2.739
				Askotariko hartzekodunak.....		4.354	5.031
				Admin. publik. bestel. zorrak.....		33	44
AKTIBOA, GUZTIRA		83.722	77.769	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		83.722	77.769

B. 2017 eta 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako Galera eta irabazien kontuak Euroak milakotan

	Eransk.	2017	2016
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	A6	33.448	30.519
Enpresak aktiborako egindako lanak.....		1.433	953
Hornidurak.....	A7	(19.535)	(19.262)
Aktibo ukiezina- abian dauden lursail, eraik., instalaz. tekniko eta ibilgetuen gain. eskubideak.....		-	6
Langileria-gastuak.....	A8	(822)	(768)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	A7	(2.984)	(2.141)
Ibilgetua amortizatzea.....		(1.500)	(629)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte eta beste.....	A4	189	198
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....		-	24
Beste emaitza batzuk.....		(610)	-
USTIAPENAREN EMAITZA		9.619	8.900
Balio negoziagarrien eta bestelako finantza baliabideen sarrera finantzarioak.....		-	1
Gastu finantzarioak.....	A5	(9.686)	(9.692)
Finantza gastuak ibilgetura txertatzea.....	A5	319	337
Finantza baliabideetan arrazoizko balioaren bariazioa.....	A5	3.941	1.006
EMAITZA FINANTZARIOA		(5.426)	(8.348)
EKITALDIKO EMAITZA		4.193	552



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. 2017 eta 2016ko ekitaldietako ondare garbian aldaketan egoera	Euroak milakotan	
	2017	2016
SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA		
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	4.193	552
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira	(188)	(197)
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	(189)	(198)
Zerga ondorioa	1	1
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	4.005	355

ONDARE GARBIA ALDAKETA GUZTIZKO EGOERAK	Kapitala eta erreserbak	Aurr. ekit. emaitzak	Ekital. emaitza	Dirulag. doh. & leg.	GUZTIRA
Saldoa 2016ko urtarrilaren 1ean	20.285	(60.050)	(796)	41.239	678
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	552	(197)	355
Bazkideen ekarpenak	44.920	-	-	(38.547)	6.373
2015eko ekitaldiko emaitzaren banaketa	-	(796)	796	-	-
Saldoa 2016ko abenduaren 31n	65.205	(60.846)	552	2.495	7.406
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	4.193	(189)	4.004
2016ko ekitaldiko emaitzaren banaketa	-	552	(552)	-	-
Bazkideen ekarpenak	6.000	-	-	-	6.000
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	71.205	(60.294)	4.193	2.306	17.410

D. 2017 eta 2016ko ekitaldietako eskudiruzko fluxuen egoerak	Euroak milakotan	
	2017	2016
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	4.193	552
Emaitzari doikuntzak	8.008	8.755
Ibilgetua amortizatzea	1.500	629
Zuzkiduren aldaketa	1.272	-
Finantza gastuak ibilgetura txertatzea	(319)	(337)
Diru-laguntzak egozteak	(189)	(198)
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	-	(24)
Sarrera finantzarioak	-	(1)
Gastu finantzarioak	9.686	9.692
Finantza baliabideetan arazoizko balioaren bariazioa	(3.942)	(1.006)
Kapital arruntean aldaketak	(1.920)	(952)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	(9.686)	(9.629)
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	595	(1.274)
Inbertsioen ordainketak	(4.050)	(2.766)
Desinbertsioengatik kobrantzak	-	76
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(4.050)	(2.690)
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	6.000	6.265
Finantza pasiboaren tresnengatik kobrantzak eta ordainketak	(693)	(659)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	5.307	5.606
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	1.852	1.642
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	5.722	4.080
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	7.574	5.722





ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION ARAUDIA

2017ko ekitaldian indarrean zeuden Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuek, besteak beste, honako xedapen hauek besarkatzen dituzte:

- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko erakunde publikoak Partzuergo izaera izango du eta bere xedeak betetzeko berezko lege-nortasuna eta jarduteko gaitasuna izango du, indarreko xedapenetan eta Estatutuetan ezarritakoari jarraikiz. Partzuergoa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikia dago.
- Partzuergoa arautuko du Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, garapeneko erkidegoko araubidean eta Estatutuetan agindutakoak.
- Partzuergoak zerbitzuen prestazioen kudeaketa egiteko Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legeak tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko bereizten dituen moldeetakoren bat baliatuko du.
- Partzuergoko langileak kontsortzioan bildutako administrazioetako funtzionarioak edo lan kontratupeko langileak izango dira, ezargarria den araudiak aurreikusten dituen salbuespenak aintzat hartuta. Idazkari-lanetan partzuergoan bildutako enteetako funtzionario bat ariko da. Kontu-hartzaile lanetarako, Partzuergoa zein administrazio publikotakoa den, une horretan administrazio horretako Kontuhartzailetza atalaren zerbitzura diharduen langilea hautatuko da. Partzuergoko ekonomia eta finantza kudeaketaren barne kontrola egiteko aribidea legokioke.
- Partzuergoa atxikipenezko administrazio publikoaren ondare-arauek arautuko dute.
- Aurrekontua urtero onartuko du Batzar Nagusiak, atxikipenezko administrazio publikoaren arabera ezargarria zaion araudian finkatutako epe eta baldintzekin.
- Partzuergoak bere kontuak kontabilizatu, egin eta aitortuko ditu atxikipenezko administrazio publikoaren arabera ezargarria zaion araudian aurreikusitako kontabilitate publikoko printzipio eta arauari jarraikiz. Kasu guztietan, urteko kontuen auditoria bat egingo da eta partzuergoa zein administrazioari atxiki zaion, administrazio horren kontrol-organoaren erantzukizun izango da auditoria egitea. Partzuergoa aurrekontuen atal izango da eta atxikipenezko Administrazio publikoaren kontu orokorrean jaso beharko da, araudian aurreikusitako moduan..
- Partzuergoak egiten dituen kontratuak Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta gai honetan gainerako indarreko arautegiak arautuko ditu.
- Estatutuetan aurreikusi gabeko egoera orotarako eta arauak interpretatzeko Toki Araubidearen Legediak xedatutakoa baliatuko da; baita, Partzuergoak xede duen gaiarekin lotutako foru, autonomia, Estatu eta Europako arauak xedatutakoa ere.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa sozietate anonimo bat da, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak soilik partaidetzen duena eta zuzenbide pribatuak arautua. Aplikagarri zaio



1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, 2010eko uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena.

Ondasun eta zerbitzuen edo inbertsioen kontratazioaren esparruan, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa botere esleitzailerik da, SPKLren 3.3 artikuluarri jarraikiz. Lege honen 20. artikuluarren arabera kontratuak pribatuak dira eta SPKLTBren 137. artikuluarri arautuko ditu, eta erkidegoko mugak gainditzen dituzten haiek, esleipenari dagokionez, SPKLren 190. artikuluarri arautuko ditu; nolana den ere, publikotasun, lehia, gardentasun, isilekotasun, berdintasun eta ez bazterkeria printzipioak gorde beharko ditu.

Langileak kontratatzeari dagokionez, Konstituzioan ezarritako eta araudi aplikagarrian (EFPL eta EPOELTB) garatutako arbitrariotasunaren debeku, berdintasun, merezimendu, eta gaitasun printzipioen mende dago.

Aipatu ditugun xedapenez gain, honako hauetan jarri dugu azpimarra:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 6/2007 Foru Araua, apirilaren 10koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituena.
- 7/2008 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorren Aurrerabide Dokumentua (2008-2016) onesten duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

A.2 AURREKONTUA ETA URTEKO KONTUAK

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren 2016ko abenduaren 27ko Batzar Nagusiak erabaki du hasiera batean Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa entitateen 2017ko Aurrekontu Orokorra onartzea, GFAkoarekin batera jasotzeko. 2017ko otsailaren 21ean GAO n argitaratu da. Hona hemen onartutako aurrekontuen xehakapena:

	Euroak milakotan		
	GHKonts.	GHKudeak.	Bateratua
Tasak eta bestelako sarrerak.....	34.201	34.171	34.171
Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak	6.000	6.000	6.000
Pasibo finantzarioak	-	3.784	3.784
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	40.201	43.955	43.955
Langileria-gastuak	-	857	857
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan.....	34.201	24.323	24.323
Gastu finantzarioak.....	-	9.862	9.862
Inbertsio errealak	-	7.824	7.824
Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak	6.000	-	-
Pasibo finantzarioak	-	1.089	1.089
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA	40.201	43.955	43.955

2017ko ekitaldiari dagokionez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren 2019ko ekainaren batzar nagusiak Kontsortzioaren Kontu Orokorra eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren Urteko kontuak onartu zituen, administrazio-kontseiluak 2018ko martxoan formulatu zituenak.

A.3 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN IBILGETU UKIEZINA ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ONDARE ATXIKIA

Hona hemen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren Ibilgetu ukiezina:

IBILGETU UKIEZINA	Euroak milakotan							
	Kostua			Amortizazioa			Garbia	
	Abe.16	Altak	Abe.17	Abe.16	Altak	Abe.17	Abe.16	Abe.17
Ikerketa eta garapen gastuak.....	916	-	916	(916)	-	(916)	-	-
Aplikazio informatikoak.....	43	-	43	(29)	(9)	(38)	14	5
Beste ibilgetu ukiezin bat.....	58	-	58	(11)	(19)	(30)	47	28
Lursail, eraik., ins. tko, indar.ibilg. gaineko eskubideak..	68.764	4.369	73.133	(3.392)	(1.471)	(4.863)	65.372	68.270
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA	69.781	4.369	74.150	(4.348)	(1.499)	(5.847)	65.433	68.303

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren Ibilgetu ukiezineko ondasunek jabari publikoko ondasun izaera dute, izan ere jabetza Kontsortzioarena da eta zerbitzu publiko bat emateari meneratzen zaizkio. Azpiegitura hauetatik gehienak Kontsortzioak kudeaketa mandatuko

esparru kontratuan gauzatutako enkarguaren bitartez erosi edo eraiki dira, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak duen berezko baliabide izaeraren indarrez. Ondasunen erabilera pribatibo eskusiboa atxikipen erregimenaren pean egiten da, ordain ekonomikorik batere ordaindu gabe. Kudeaketa mandatuaren indarraldia amaitu delarik, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak Kortsortzioari ondasunak dauden egoeran itzuliko dizkio. Bada, Kortsortzioaren Egoeraren Balantzeko 2017ko abenduaren 31ko Ondare atxikia Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren 2017ko abenduaren 31ko Ibilgetu ukiezinaren kostuari dagokio, 74,2 milioi euroren zenbatekoan.

Hona hemen 2017ko ekitaldian “Lursail, eraikuntza, instalazio tekniko eta indarreko ibilgetuaren gaineko eskubideak” kontu-sailak izan duen kostuaren eta bilakaeraren xehakapena:

	Euroak milakotan			
	Kostua 2016/12/31	Altak/(Bajak) 2017	Eskura jarria	Kostua 2017/12/31
GIG1 emakidadunaren esku jarritako aktiboak	-	-	46.466	46.466
Lursailak eta eraikuntzak	10.222	2.109	(10.222)	2.109
Abian diren eraikuntzak	29.747	1.522	(29.347)	1.922
Instalazio teknikoak muntaian	9.964	68	(6.895)	3.137
Bestelako instalazioak	2	-	(2)	-
Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa	49.935	3.699	(46.466)	7.168
Epeleko konpostatze planta	10.310	511	-	10.821
Elgoibarko Transferentzia estazioa.....	2.324	-	-	2.324
Lapatxeko konpostatze planta.....	3.840	-	-	3.840
Ontziak bereizteko Legazpiko gunea	1.240	-	-	1.240
Garraio gaiak	751	-	-	751
Altzariak eta tresna informatikoak.....	136	-	-	136
Beste txiki batzuk	228	159	-	387
Lursail, eraik., indar. instal. gaineko eskubideak	18.829	670	.	19.499
GUZTIRA	68.764	4.369	-	73.133

2017an Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. faseko obra publikoa emateko kontratua esleitu zen, zeinak Balorizazio Energetikoko Planta eta Tratamendu Mekaniko Biologikoko Planta finantzatu, eraiki eta ustiatzea barne hartzen baitu; emakidak zehazten du: erabilgarritasunagatik urteko 26,2 milioi euroren ordainketa; TMBko plantan tonako 4,6 milioi euroren ordainketa; eta Balorizazio Energetikoko Plantan tonako 14,28 euroren ordainketa; baita, energia merkaturatzeagatik diru-sarrerak eta energiaren enkante bidez inbertsioaren araberako ordainketagatik diru-sarrerak. Kontratuaren epea 35 urte da eta horietatik 26 hilabete obrak egiteko baliatuko dira eta beste 4 hilabete, abian jartzeko.

Kortsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren artean izenpetutako kudeatzeko mandatuak agintzen du Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasearen emakida kontratua izenpetu ondoren, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak konpromisoa hartzen



duela sozietate emakidadunaren esku jartzeko obra egikaritzeko beharrezko diren bere jabetzako lursailen eta instalazioen erabilera-eskubidea, 2016ko abenduaren 31n 46,5 milioi euroren balioa dutenak. Eskura jartze hau 2017ko maiatzaren 9an gauzatu da, obren zuinketa eta hasiera aktan ageri den moduan. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak ibilgetuan gorde ditu emakidadunari lagatako aktiboak, izan ere ebaluatu du CRGri egin beharreko fakturazioak barne hartu beharko duela emakidadunari lagatako aktibo eta ukiezinak linealki berreskuratzeko zatia. Kontratua amaitzean, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako aktiboak (Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasea) egoera operatiboan itzuliko dira, ohiko errendimenduak dituztela eta erabiltzeko egoera onean daudela.

2017ko ekitaldi itxieran dagoen GHKZren 7,2 milioi euroren saldoak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 2. faseko kontratuari lotuko zaizkion inbertsioak jasotzen ditu.

Ibilgetuaren altak 2017

2017ko ekitaldian 4,4 milioi euroren ibilgetuko altak izan dira; hona hemen kontu-sail esanguratsuenak:

- Donostiako Udalari azken % 25aren ordainketa, 2,1 milioi euroren zenbatekoan, 2010eko urtean izenpetutako hitzarmenaren ondorioz lursaila erosteagatik.
- Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasearekin lotutako inbertsioak, Kontsortzioak aholkularitza eta ingeniari-zerbitzuen kontzeptupean egindako kostuak kapitalizatu izanaren ondorioz, 626.458 euroren zenbatekoan.
- Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. faserako beharrezkoa den eraikuntza-asegurua, 642.471 euroren zenbatekoan.
- Epeleko Plantako interesen aktibazioa, 319.382 euroren zenbatekoan.

Auziak

Kontsortzioa eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa eragiten dituzten auziei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Txosten hau idatzi dugun datan, irmo bilakatu da EHANen epaia, zeinak zuzenbidearen aurkako dela dioen GHKZ eraiki, abiarazi eta ustiatzeko kontratuaren ebazpena, ebazpen hori onartu zuen erabakian botere-desbideratzea ikusi baitu.
- Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasearen obra publikoaren emakida kontratuari dagokionez, 2017ko urtarrilaren 31n esleitua, honako errekurtsio hauek jarri dira, txosten hau jaulki dugun datan ebazteke daudenak:
 - Elkarte batek errekurtsio bat aurkeztu du EHANren aurrean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, GFaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren aurka, Ingurumen sailburuordearen ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioaren ezespenagatik; ebazpen horren indarrez aldatu egin da Ingurumen Eraginari buruzko Adierazpena eta Kontsortzioari Donostiako udalerrian sustatutako Hondakinen Balorizazio Energetikoaren proiekturako emandako



ingurumen baimen integratua; halaber, errekurtsua jarri da Ingurumen sailburuordearen ebazpenaren aurka, zeinaren indarrez erabaki baita epea luzatzea egiaztatu ahal izateko ingurumen baimen integratuaren eta aipatutako proiektuaren Ingurumen Eraginari buruzko Adierazpenaren formulazioaren emakida-ebazpenean jasotako baldintzak bete direla. Eusko Jaurlaritzak auzia GFARI eskualdatu dio, zeinak elkartearen legitimazio-eza planteatu baitu.

- Urola-Erdiko eta Tolosaldeko mankomunitateek Donostiako 2 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean jarritako sei errekurtsu: bi, pleguen aurka; bi, aurreproiektuari jarriak; eta beste bi, bideragarritasun azterlanaren aurkakoak.
 - Tolosaldeko Mankomunitateak Donostiako 1 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean errekurritu du Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Lehendakariaren 2017ko urtarrilaren 31ko ebazpena, zeinaren indarrez onartu baitzen esleitzea, obra publikoaren emakida erregimenean, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasea diseinatu, eraiki, finantzatu, gauzatu eta mantentzeko kontratua. Berebat, Mankomunitate bera Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren ebazpena errekurritu du, aipatutako proiektuaren Ekonomia eta Finantza Plana eta dinamizatzeko baliabideak onartzen dituen.
- Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 2. faseari dagokionez, hiru errekurtsu jarri ditu Tolosaldeko Mankomunitateak Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, 2017ko abenduaren 26ko Kontsortzioaren Batzar Nagusiaren erabakia errekurritzeko; erabakiak pleguak, aurreproiektua eta bideragarritasun azterketa onartzen ditu eta epaia ebazteke dago.



A.4 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU-REN JASOTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK ETA ERRESERBAK, ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN IBILGETU FINANTZARIOA ETA ONDAREA

Hona hemen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Ibilgetu Finantzarioaren eta Ondarearen kontuak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren Jasotako Dirulaguntza, Dohaintza eta Legatuak eta Erreserben kontuak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	GHKonts.			GHKudeak.	
	Ondarea	Ondare atxikia	Ibilgetu finantz.	Erreserbak	Jasotako dirulag.
Saldoa 2015eko abenduaren 31n	72.423	(71.423)	1.000	19.285	41.240
GFaren dirulag. kapitalizazioa 2015 arte GHHKPO.....	38.547	-	38.547	38.547	(38.547)
Dirulaguntzen zerga efektua.....	-	-	-	108	-
GFaren dirulag. kapitalizazioa 2016 arte GHHKPO.....	-	-	-	6.265	-
GHKonts. atxikitako ondare balio txikiagoa 2016an.....	(1.642)	1.642	-	-	-
Diru-laguntzak emaitzen kontura egoztea.....	-	-	-	-	(198)
Beste txiki batzuk.....	-	1	-	-	-
Saldoa 2016ko abenduaren 31n	109.328	(69.780)	39.547	64.205	2.495
GFaren dirulag. kapitalizazioa 2017 arte GHHKPO.....	6.000	-	6.000	6.000	-
GHKonts. atxikitako ondare balio handiagoa 2017an (ikus A.3) .	4.369	(4.369)	-	-	-
Beste txiki batzuk.....	-	(1)	-	-	-
Diru-laguntzak emaitzen kontura egoztea.....	-	-	-	-	(189)
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	119.697	(74.150)	45.547	70.205	2.306

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Ibilgetu finantzarioak 2017ko abenduaren 31n 45,5 milioi euroren kontularitzako balioa du, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa sozietate partaidetuan duen partaidetzagatik eta 28,1 milioi euroan murriztu behar da sozietate horren ondare garbiaren balioa islatzeko (17,4 milioi euro).

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren 2017ko ekainaren 20ko Batzar Nagusiak erabaki du Kontsortzioak berezko baliabide duen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketari gaurdaino egindako funtsen eskualdaketek bazkide bakarraren ekarpen izaera dutela eta hala kontabilizatu behar direla; funts horiek datoz GHHKPOtik eratorritako obligazioak betez GFak Kontsortzioari emandako diru-laguntzatik. Erabaki hau oinarritzen da GFak Kontsortzioari egindako diru-laguntzaren baldintzen aldaketan, 2017ko ekainaren 13an Aldundiaren Kontseiluak onartutakoetan, zeinetan adierazten baita Kontsortzioak jasotako GFaren dirulaguntza Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketari eskualdatu ahal izango zaiola, Kontsortzioaren berezko baliabide den aldetik, ekarpen kontzeptupean. Artean onartu gabe zeuden 2016ko ekitaldiko kontuak eta honenbestez, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren Pasiboko “Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak” kontuan ageri zen 38,5 milioi euroren saldoa, Kontsortzioak GFatik jasotako dirulaguntzena, Erreserbak kontu-sailean erregistratzen dira; bestalde, Kontsortzian ibilgetu finantzario handi modura erregistratzen dira, Ondarean kontrapartida duela Kontsortzioari egindako ekarpenengatik.



GFAk Kontsortzioari 2016ko eta 2017ko ekitaldietan emandako dirulaguntzen urtekoak berriz, hurrenez hurren 6,3 eta 6 milioi eurorenak, zuzenean Erreserbak atalari egozten zaizkio Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketan, kide bakarraren ekarpen modura; aldiz Kontsortzioan ekarpen handiago modura erregistratzen da Ibilgetu finantzarioan eta Ondarean kontrapartida soilik 2017ko ekitaldiko urtekoak du, 6 milioi euroren zenbatekoarekin.

